

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko irailaren 29a. VIII. urtea. 2.281. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Bildarratzek geldialdia egingo du ibilbide instituzionalean

Aurretik duen urtea lanera eta doktoretza bat egitera bideratuko du Tolosako alkate ohiak; «puntu eta bereiz bat da», esan du **02**



Alderdikideez inguratuta eskaini zuen prentsaurrekoa, R. CALVO



Ikasleek lehen, kiroldegira joan behar izaten zuten jangelara joateko; orain eskolan bertan bazkaltzen dute. I. GARCIA

Bihar izango da Ikaztegi etako herri eskola berrituaren ate irekiera

2000. urterako eskola txiki geratu zitzaizen ikaztegi etarrei, baina 2007rako egoera oso zaila zen. Iaz hiru eraikinetan eman behar izan zituzten eskolak; 16:30ean hasiko da biharko ekitaldia **04**

Abian da komikia eta euskara batzen dituen lehiaketa

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu du laugarren goz Galtzakomik txapelketa; azaroak 18 da lanak bidaltzeko azken eguna eta sari banaketa abenduaren 16an izango da, Ibarran **06**

Gaur izango da Antxon Bandresi azken agurra emateko hileta elizkizuna

Euskal Mendizale Federazioaren presidentea eta Tolosako zinegotzi ohiaren herenegun hil zen **02**

Igandean izango da Belauntzako III. Merkatu Txikia

10:30etik 14:00etara herriko baserrietako eta etxeetako askotariko produktuek hartuko dute herria; merkatua eta gero herri bazkaria ere egingo dute eta txartelak 30 euro balio du **07**



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.fuerriarivascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETI LOKALAK BULABEA

24 H..

943 694 873



Jokin Bildarratzek alderdikideez inguratuta eskaini zuen prentsaurrekoa herenegun. B.C.

Bildarratz: «Udaletxea uzten dut, baina politika ez dut inoiz utziko»

Alkate ohiak lanean
murgilduta eta
Nazioarteko
Harremanak doktoretza
egiten emango du urtea

Rebeka Calvo

Jokin Bildarratz (EAJ) Tolosako alkate ohiaik udaletxeak uzten duela, baina politika ez duela inoiz utziko argitu zuen herenegun eskainitako agerraldian. Prentsaurrekoa osoko bilkura baino lehen egin zuten, bertan utzi behar baitzuten ofizialki zinegotzi kargua, baina osoko bilkura bertan behe-
ratu geratu zen Antxon Bandres alderdikidearen heriotza dela eta.

«Bildide instituzionalean puntu eta bereiz bat idatziko dut, baina beti egongo naiz politikan», argitu zuen alkate ohia. Bildarratzek ikasturte honetan zehar «ikasketa prozesu batean» egongo dela esan zuen, «lanean murgilduta», gaineratu zuen. Aneotako ikastolan dago lanean, eta era berean, Nazioarteko Harremanak doktoretza egingo du Euskal Herriko Unibertsitateko

Zuzenbide fakultatean. Atzera begiratu eta «harrotasunik gabe, baina harro nago ziklo honetaz», esan zuen.

16 urte udaletxean

Prentsaurrekoa udaletxean emandako 16 urteak gogora ekarri zati hasi zuen: «Urte hauetan Tolosak ikaragarri aurreratu du; ordenatuago dago, funtzionatzen du. Industria zegoen tokian etxebizitzak daude, baina baita industria ere. Merkataritza indartsua dugu, oinezkoek leku gehiago dute, aparkaleku gehiago, autobus urbanoa jarri dugu, bi zahar egoitza ditugu, Zerkausia berreskuratu dugu...». Era berean, Abastos eraberritua, Topic, Lehiberri, Tolosa 2015 ekimena, Usabal kiroldegia eta abar aipatu zituen. Horiek horrela, «niri leku bat egin zidaten bezala, orain tokiak uzteko eta EAJ berritzeko garaia da», esan zuen «irakurketa instituzionalari» dagokionez, izan ere agerraldian alderdi pertsonala eta politika ere izan zituen hizpide.

Arlo pertsonalari dagokionez, «gaurkoa puntu eta bereiz bat da, ez da puntu eta jarraia eta are gu-

txiago, bukaera», nabarmendu zuen. EAJ alderdiarekin egindako ibilbidea nabarmendu zuen, nahiz eta «zure herriko alkatea izatea bezalakorik ez dagoen», esan zuen.

Irakurketa politikoa

Irakurketa politikoa iri dagokionez, udaletxea «arrituta» uzten duela esan zuen Bilduk ez duela-ko ezer berria eskaintzen, eta «ez die axola», gaineratu zuen. Bildu hauteskundeetarako sortutako plataforma dela esan zuen, eta «ez du ez Tolosarako, ez Gipuzkoarako, ez eta Euskal Herriarako proiekturik».

Era berean, Bildun «proiektu, anbizio eta amets eza» ikusten duela esan zuen, «baina beraiek ez daude kezkatuta».

Bukatzeko Jokin Bildarratzek lagundu dioten guztiei eskerrak eman zizkien: EAJri «nigan konfiantza jartzeagatik», prentsari, lagunei, Gipuzkoa Buru Batzarreko Patxi Ezkiagari, ETako biktima den Ana Tadeoren amari, alderdikideei...

Agerraldia hunkituta bukatu
zuen Bildarratzek, geroarte esa-
naz.

Gaur emango diote azken agurra Antxon Bandresi

Herenegun zendu zen,
Urkizun zuen baserrian
lanean ari zela; Santa
Maria elizan izango da
hileta elizkizuna

Itzea Urkizu

Astearte arratsaldean, 19:30era-ko aurreikusita zegoen osoko bilkura bertan behera geratu zen. Antxon Bandres ezbehar batean hil zen 63 urterekin, Urkizun zuen baserrian belarra mozten ari zela; buruan harri batekin kolpe bat hartu zuela azaldu dute Bandresen senideek. Gaur emango diote azken agurra Santa Maria elizan egingo duten hileta elizkizunean, 19:00etan.

Bandresen gorpuari autopsia burutu eta gero, atzo arratsaldean eraman zuten Oria beilategara. Hileta elizkizuna, berriz, gaur izango da Santa Maria elizan, 19:00etan.

Tolosarren artean maitatua

Euskadiko Ezkerraren ordezkari bezala, Tolosako Udaleko zinegotzia izan zenak, emaztea eta bi seme zituen. Pasa den maiatzaren 22ko hauteskundeetan, EAJ-ko zerrendan aurkeztu zen.

1970ean Biologia ikasketak amaitu zituen Nafarroako Unibertsitatean, eta handik bi urtera, Medikuntza eta Kirurgia ikasketak amaitu zituen. unibertsita-

tea berean. Lanbidez, beraz, medikua zen, erradiologian espezialista; Asuncion klinikan lan egingen zuen gaur egun.

Horrez gain, Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Fisikoa saileko kidea zen. Euskal Mendizale Federazioko lehendakariordearen postua zuen gaur egun, hainbat urtetan zehar lehendakari lanetan aritu ondoren.

Tolosarren artean gizon ezagun eta maitatua zen, eta herrikio hainbat ekimenetan parte hartzen zuen. Besteak beste, abenduaren 24an Olenztzerren larruan sartzen zen haurrei irribarreak eraginez, eta Inauterizale amorratua zen. San Joan jaietako egitarauan ere parte hartzen zuen, eta Andia Kultur Elkarteko kidea zen; pasa den udaberrian ospaturiko Napoleon garaiako alardean, antolatzaile lanetan aritu zen Andia bere kideekin batera.

Osoko bilkura bertan behera

Astearte iluntzean, osoko bilkura 19:30ean hastea aurreikusita zegoen, Bildu eta Alaralrek osatutako udal gobernuaren lehen 100 egunen balantzea baloratzeko, besteak beste. Heriotzaren berria jaso zutenean, EAJko udal ordezkariak plenoa atzeratzeko eskatu zioten Ibai Iratzeri. Alkateak, atsekabeen bat egin zuen zinegotzi jeltzaleekin, eta «doluminak eta besarkadak beroenak senideei» eskaini zizkien.



Antxon Bandres gizon ezaguna zen Tolosan. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Kimikan lizentziatua naiz eta klase partikularrak ematen ditut: matematika, fisika eta kimika. 637 18 08 58.

SALGAI

■ **Garajea.** Tolosako lurre auzoan 16 metro karratuko garaje itxia salgai. 660 798 685 (goizez) edo 634 495 925 (arratsaldez).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Taberna - Jaletxea
Zaharren Biltokia
Sanmielak
ondo pasa!

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontura egokitzen gara
- Menu bereziak

Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dira

Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde ohiko ordu eta lekuetara azaltzeko eskatu dute

Asier Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dira bihar, ohiko orduetan. Mobilizazioetan parte hartzen dutenak, euskal preso eta iheslari politikoak eduki ohi dituzte buruan, eta biharkoan ere horrela izango da. Ekimenaren sustatzaileek, herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte bertara.

Irailako azken ostiraleko elkarretaratzean sakabanaketa politika hizpide izango dute, baita Aritz Lopez tolosarraren itzulera ere.

Presoen eskubideen alde mugitzen diren eragileek urteak daramatate egungo espetze politika salatzen. Horren adibide garbia, sakabanaketa da. Euskal presoak Frantzia eta Espainiako espetxeetan dituzte sakabanaturik, Euskal Herriatik milaka kilometro. Senide eta lagunek, bisita edo bisetara joateko, orduak eta orduak pasa behar izaten dituzte errepidan. Horrek, alde batetik gastu

ekonomikoa dakar, eta bestetik, autoan pasa beharreko ordu eta orduak. Adibide bat jartzeko: Joxe Mari Olarra billabonatarra A Lama espetxean aurkitzen da, Pontevedran (Galizia). Villabonatik espetxera 607 kilometro daude, autoan gutxi gora behera 6 ordu. Galiziatik eskualdera, itzulera bidaia, beste horrenbeste. 40 minutuko bisita bat izateko, 12 ordu autoan pasa behar izaten dituzte senide eta lagunek: goizean goiz jaiki; autoa hartu; bisita 40 minutu; auto hartu; etxera iritsi eta iluntzea. Egun guztia autoan.

Egoera hau salatu dute, behin

↓ Azken ostiralak

BIHAR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezket.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Txaraman.
- **Leitza.** 20:00etan.

eta berriz, Etxerat edo Amnistia-ren Aldeko Mugimendutik. Sakabanaketa politika honek auto istripuak ere ekarri izan ohi ditu. Etxeraten esanetan, irailaren 18an, Alcalá-ko (Madril) espetxean aurkitzen diren Juan Ramon Karasatorre preso neska lagunak, eta Oskar Zelarain presoaren neska lagun eta alabek, istripu arin bat izan zuten espetxera bidean, Madrilko 48. kilometroan. Kotxe ilarak zirela eta, beste kotxe baten aurka talka egin zuten. Aurten jada bederatzi istripu gertatu kontatu dituela esan dute Etxeratetik.

Irailako azken ostiralean, bihar, «preso politikoan aurkako erasoak, miaketa bortitzak eta aurrez aurrekoen galerak» ere salatuko dituztela azaldu dute preso eskubideen aldeko mugimendutik.

Aritz Lopez, etxean

Irailak eskualdeko preso baten kaleratzea ere ekarri du: Aritz Lopez jadanik etxean aurkitzen da. Tolosako gaztea 2009ko azaroan atxilotu zuten, gazte independentisten aurkako polizia operazio handi batean. Ia bi urte espetxean pasa ondoren, irailaren 16an aske gelditu zen, epaiketaren zain. Bi urteren ondoren, gazte tolosarrak azken ostiral batean parte hartzeko aukera izango du.

Tolosako 750. urteurreneko ereserkia Bruselan entzungo da

Tolosako Orfeoia kontzertua eskainiko du urriaren 10ean, Wolubilis kultur zentroan

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Orfeoia kontzertua eskainiko du Bruselako Wolubilis kultur zentroan urriaren 10ean, 19:00etan.

Emanaldia, Europar Batasuneko Euskal Autonomi Elkartearen ordezkariak 25 urte betetzen dituela eta antolatutako ospakizunen barruan kokatu behar da. Ignacio Ruiz de Alegria mai-sua ariko da zuzendari lanetan. Kontzertuan, alde batetik, G. Ros-siniren *Petite Messe Solennelle*-ren zati batzuk entzuteko aukera egongo da; bestetik, euskal kanta sorta bat eskainiko dute; eta azkenik, Enrike Ugarte Tolosa 750 Fundazioarentzat propio sortutako *Tolosako ereserkia* kantatuko dute, Karlos Linazasororen hitzak dituen, hain zuzen. Instrumentista lanetan Javier Perez Az-peitia, Ana Belen Garcia eta hiru musikari tolosar ariko dira: Iñigo Agirre, Juanjo Falcon eta Mitxel Longaron.

Bakarlarriak Amaya Arberas sopranoa, Juan Noval tenorra, Beatriz de Galvez kontraltoa eta Pablo Garcia baxua izango dira.

Zine forumean 'Uncle Boonmee' film tailandiarra eskainiko dute gaur

Asteburua eta astelehena kontuan hartuta, guztira hiru pelikula ikusteko aukera egongo da

Erredakzioa Tolosa

Zine forumaren barruan, gaur, *Uncle Boonmee* filma ikusteko aukera egongo da jatorrizko bertsiotan. Gaztelarazko itzulpena *Re-cuerda sus vidas pasadas* da. Zine forumeko pelikula ikusteko, Leidor aretoan bi emanaldi eskainiko dituzte: 19:15ean eta 21:45ean.

Uncle Boonmee Apichatpong Weerasethakul zuzendari tailandiarren lana da. Cannes-eko zine jaialdian sari nagusia jaso zuen 2010ean. Sitges-en, urte berean, kritikaren saria irabazi zuen, eta aurten, Tailandiak Oscarretarako aukeratu du pelikula.

Asteburua eta astelehena

Urriaren 1ean, etzi, *El hombre de al lado* ikusteko aukera egongo da 19:30ean eta 22:30ean, ohi bezala Leidorren. Pelikula hau ikusteko astelehenean ere aukera egongo da, kasu honetan 20:30ean.

Urriaren 2an, igande, haurrentzat *Kung Fu Panda 2* filma ikusteko aukera egongo da, 17:00etan. Ondoren, 19:30ean eta 22:00etan, helduagoentzat *Principiantes* pelikula eskainiko dute.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Mahala bi sorta

Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 Pagoa

Euskal Herri berriko garagardoa

Oiartzun
Tel.: 34 619-42 11 53
www.pagoabeer.com
www.euskalherriokoplaza.com/pagoa



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Donostiako Aquariuma

3 lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



4 TTAk

bi elastiko*

www.euskalherriokoplaza.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun **TXOKOA hitza** info

Mugikortasun jasangarriaren alde egin dute herritarrek

Tolosaldeko Mugikortasun Astearen balorazio ona egin du Tolosaldea Garatzen-ek

Itzea Urkizu

Eskualdeko herritarrek ingurumenarekin gero eta sentsibilizatuago daudela azaldu dute Tolosaldea Garatzen-eko arduradunek. Tolosaldeko Mugikortasun Astearen barruan antolatutako ekimenek arrakasta izan dute.

Mugikortasun Jasangarriaren Nazioarteko Astearen harira, Tolosaldea Garatzen-ek eta Aduna, Alkiza, Anoeta, Alegia, Berastegi, Elduain, Zizurkil, Villabona, Asteasu, Irura eta Ibarra udalek ingurumenari gutxiago eragiten dioten garraio bideak erabilteza aldarrikatu nahi izan dute beste urte betez. Jarduerarik nabarmenenak Villabonako bigarren eskuko azoka eta Tolosaldeko bidegorrien sarean zehar egingadako bizikleta martxa izan ziren. Asteburuan izan ziren biak, eta herritarrek oso erantzun ona eman dutela nabarmendu dute.

Material gehiago

Bigarren aldiz antolatuta zuten, pasaden irailaren 24rako, Villa-

bonako bigarren eskuko azoka. Bertan mugikortasunarekin zerikusia duten tresnak nahiz objektuak izan ziren eskuragarri: bizikletak, patinak, patineteak, trizikloak, autoan bizikletak eramateko aulkiak, eskularruak, puzgailuak, txirrinak, argiak, kaskoak, aulkiak, eta abar.

Salgai egon ziren bizikletetako gehienak, astean zehar herritarrek beren herriko udaletxeetara eramandakoak izan ziren. Horrela beraz, jasotako materialaren kopurua %80an igo zen, iazko azokarekin alderatuz gero. Guztira 60 bizikleta jaso zituzten; 49 partikularrenak ziren, eta 11 denetakoak.

Egun pasa bizikleta gainean

Irailaren 25erako, herri mailako Tolosaldeko Bizikleta Bira antolatuta zuten. 100 bat lagunek parte hartu zutela azaldu dute, eta haurrak, gazteak nahiz helduak bizikletan eta gurditxoetan ibili zirela.

Bizikleta martxak bi irteera puntu izan zituen, eta batzuk Ikaztegiatik hasi ziren bitartean, Asteasutik abiatu ziren beste batzuk. Erdi bidean elkartu ziren guztiak, eta hamaiketako ekologikoa egin eta gero, Bizibidaiaiko kideak Zeelanda Berrira egindako bidaiaz aritu ziren.



Jende asko animatu zen bizikleta martxan parte hartzera. HITZA



Eraikin zaharrari ere itxura berria eman diote. Atzeko zati guztia berriz, berria da. I. GARCIA

Ikaztegiako Herri Eskolako irakasleentzat hilabete gogorra ari da izaten. Handitze obrenatigatik ikasturtea atzeratu behar izan zuten, eta guztia antolatu nahian dabilta bihar 16:30ean egingo duten ate irekierarako.

Urte luzeak eta gero, iritsi da eskola berria

Imanol Garcia | Ikaztegiata

Herri eskola berriko atak irekiko dituzte bihar, 16:30ean. Herri-tarrek eskola berria ezagutzea nahi dute irakasleek, eta eraikina ezagutu nahi duten guztiak ongi etorriak izango dira.

Maria Garai irakasleak eta eskolako zuzendariak, 2000. urterako eskola txiki geratzen hasia zela gogoratu du. Eskola berritzeko beharra ikusten zuten, eta udalarekin eta Guraso Elkartearekin harremanetan jarri ziren.

Urteak pasa ziren eta 2007. urteko ikasturtean ordea, txiki geratzenaren errealitate bihurtu zen. Gela aurrefabrikatu bat jarri behar izan zuten eskolaren kanpoan, eta hiru urtez egon ziren ikasleak bertan. Guraso Elkarteak eta udalarekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzak eskola handitzeko beharra ikustea lortu zuten. Eta azkenean, baita eskola handitzea lortu ere.

Iazko ikasturtea «gogorra» izan zen. Hiru eraikinetan banatuta izan zuten eskola. Eta ikasturte honen hasiera ere zaila izaten ari dela azaldu dute. Lanak



Materialaz betetako kaxa asko oraindik ireki gabe dituzte. I. GARCIA

bukatzeako «txikikeriak falta dira, eta altzari guztiak ere ez dizkigute ekarri» diote. Kaxa guztiak hustu eta kokatzen lan handia izaten ari dira: «Lau edo bost irakasleren artean, ordu pila bat ari gara sartzen». Zazpi irakasle eta heren bat dituzte egokituta herri eskolan, baina antolatzearen ardua betiko irakasleek hartu dute.

Jangela eskolan bertan

Eraikin berriarekin gusturagelditu dira irakasleak. Behin guztia kokatuta, nahiko leku izango dute. Jangela betidanik kiroldere-

gian izan dute eta haurrek denbora asko galtzen zuten bidean. Orain, eskolan bertan izango dute jantokia. «Haurreskola bertan ez izatea da dugin pena bakarra», adierazi dute.

Auzolanean

Herritarrek auzolanean egindako lana eskertu nahi izan dute irakasleek. Lekualdatzea tokatu zaien guztietan, «herritarren laguntza izan dugu, eta udaleko langileen lana ere izugarria izan da, asko ari dira laguntzen» azpimarratu dute. Obran aritu diren laguntza ere izaten ari direla gogoratu dute. Ikasle helduenak ere laguntzeko prest agertu direnez, lanean jarri dituzte kaxekin.

Ikaztegiako eskola txikiak, beraien leloak dioen bezala, bizi-rik jarraituko du. Herrian haurrak jaitzen diren bitartean behintzat.

SMG

logistic solutions

4000 Nerea 1414, 14
20077 ELZAYA
(Bizkaia)

T: +34 943 691 410
F: +34 943 691 410
F: +34 943 691 403

info@smg-ls.com
haztegi@smg-ls.com
aduna@smg-ls.com
guraso@smg-ls.com

www.smg-ls.com

DESCRISTAL

Autoarentzako kristalgintza
Muntaia, salmenta eta konponketak
Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa

Baimendutako laminek instalazioa
SOLAR-CHECK

Ibaiondo bailara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepidea - IRURA
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

Atzo izan zen lehen batzordea, eta gaur 19:30ean, Atxulondo kultur etxean izango da bigarrena

Eneritz Maiz Zizurkil

Udalak eratu zirela hiru hilabete pasa dira. Udako oporrak igarota martxa hartzen hasiak dira. Hori da Zizurkilgo Udalaren kasua. Hamaika batzordetan banatu dituzte lanak, eta herri programa osatzeko garaian esan bezala, batzordeak irekiak eta partaidetza sustatzen dutenak izango dira.

Herria herritar guztien artean eraiki nahi dute, eta batzordeak ezinbesteko tresna direla uste du udalak. Herritar guztiei dei egiten diete elkarlanerako, eta interesgarria iruditzen zaizen batzordea aukeratzea baino ez dute.

Lehen batzordea atzo jarri zuten martxan Iriarte etxean; hezkuntza, kultura eta euskara batzordea izan da, eta Alaitz Ormazabal da arduraduna.

Gaur 19:30ean, Atxulondon

Bigarren batzordea gaur elkartuko da 19:30ean Atxulondon. Zerga politika eta sozioekonomia batzordea izango da, Nerea Lizarragaren gidaritzapean. Astelehenean, urriaren 3an, kirolaren batzordea izango da. Aritz Esnaola arduratuko da kirolaz eta 19:00etan kultur etxean elkartuko dira.

Udalak 29 urtez azpikoentzako gazte informazio zerbitzua eskaintzen du

Informazioa jasotzeko interneteko bideak erabili daitezke edo bulegora joan da eskuratu daiteke

E. Maiz Amasa-Villabona

Lan eskaintzak, ikastaroak, bekak, ekitaldiak, diru laguntzak... jasotzeko aukera eskaintzen du gazte informazio zerbitzuak. Informazio guztia, www.gipuzkoan-gazte.info helbidean dago. Hala ere, informazioa emailean jasotzeko aukera dago. Facebook orrialdean 'atsegin dut' sakatuz, www.kateatzea.net bisitatu edo bulegora joanez eskuratu daiteke. Egutero zabalik dago.

Bestetik, Gaztelekuko zerbitzua martxan dagoela gogorarazi nahi dituzte. Asteartetik igandera, arratsaldez irekitzen ditu ateak, 12-17 urte artekoentzat.

Zizurkilgo Udalak hamaika batzorde bereiztu ditu eta lanean hastera doaz

Egun berean baina 20:00etatik aurrera, internazionalismoa eta giza eskubideak batzordea eratu-ko da, eta Eva Usandizaga da arduraduna.

Urriaren 4ean, asteartean, parekidetasunaren batzordea izango da, eta Eva Usandizaga arduratuko da gaia aurrera eramateaz. 19:00etan Atxulondon elkartuko

dira. Hirigintzaren batzordea, Jose Mari Luengo alkatearen esku egongo da, eta urriaren 5ean hasiko dira 19:00etatik aurrera Atxulondon.

Gazteriaren batzordea urriaren 6an elkartuko da, Aritz Esnaolarekin eta hitzordua 19:00etan izango da Atxulondon.

Urriaren 10ean, astelehenean,

nekazaritza, lurralde antolaketa eta ingurumen sostengarria gaiak jorratzeko batzordea izango da. Arduraduna Jose Manuel Izagirre da, eta 19:00etan izango da Atxulondon. Egun berean 21:30ean eta udaletxean, baserritarak batzordea izango da. Izagirre bera izango da baserritarren gaiaz arduratuko dena.

Hamargarren batzordea ongizatearena da, eta Nerea Lizarraga arduratuko da. Urriaren 11rako jarri dute hitzordua, eta 19:00etan elkartuko dira Atxulondon. Azkenak, urriaren 18an izango da 19:00etan kultur etxean. Leire Zubeldiaren gidaritzapean, herritarren parte hartzea eta komunikazioa landuko dituzte.

SIMple

ZATOZ!

TELEFONIA MUGIKORRAK ALDATU BEHARRA DAUKA. HAS GAITZEN.

5 ZENT. / MIN

NOIZNAHI. NORMAHIRI. BETL

euskaltel
zuretzat

Estatuko delak. Deiazen ezartze-kostua: 15 zentimo. Hileko gutxieneko kontsumoa: 6 €. Alta-kuota doakoa da 2011/12/31a baino lehen ondoren ordaintzeko modalitatean eta SIMplen alta ematen dutenentzat. Zeharkako zergak ez daude sartuta.

Komikietan ere euskara sustatuz

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen duen IV. Galtzakomik komiki lehiaketan izen ematea zabaldu dute

Iñigo Terradillos Ibarra

Laugarren urtez abian da Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu eta Ibarrrako Udalak laguntzen duen Galtzakomik lehiaketa. Euskara komikiaren bidez sustatzea helburu duen ekimen honek nahi duen orok har dezake parte, horretarako azken eguna azaroaren 18a izango delarik.

Hiru kategoriatan banatzen da lehiaketa: 12 urtetik beherakoak, 12 eta 18 urte bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak. Gaia norberak aukeraturakoa izango da, eta hizkuntza, berriz, euskara.

Komikiak Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosan duen bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6) aurkeztu beharko dira. Gutunazal batean komikia eta parte-hartzailearen datuak sartuz egin beharko da, bulegora bertara eramanez, edota postaz bidalita.

Lehiaketaren inguruko informazio guztia (oinarriak, lanen aurkezpena, epaimahaia...) Galtzaundi Euskara Taldean (943 65 50 04, kultura@galtzaundi.com, www.galtzaundi.com) edo Ibarrrako udaltxeko euskara sailean (943 67 38 27, euskara@ibarrakoudala.net) eskura daiteke.

Sari banaketa eta erakusketa
Lanak aurkezteko azken egunetik hilabete batera, abenduaren 16an, egingo da sari banaketa, Ibarrrako kultur etxean. Sariak, kategoriaren arabera, komiki bilduma eta marrazketarako materialetik hasi eta 600 eurorainokoa izango dira.

Bestalde, lehiaketako irabazle lanekin, eta parte hartu duten lan guztiekin erakusketa bat ere osatuko dute Ibarrrako kultur etxean, abenduan zehar.



18 urtez gorakoak eta 12 urtez beherakoak pasa den urteko lehiaketako irabazleen komikiak. GALTZAUNDI



Joseba Antxustegietxarte • Komikigilea

«Euskara eta marrazkiekiko gogoia izatea nahikoa da»

I. Terradillos Tolosa

Galtzaundiko komikigilea Galtzakomik lehiaketako epaimahai-kidea da, Juanba Berasategi, Iñaki Martiarena *Martin*, Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Kike Amonarriekin batera. Jasotzen dituzten lanen sorkuntzak uzten du, batez ere, harrituta.

Zein helburu du lehiaketa honek?

Euskararen erabilera sustatzea da helburu nagusia. Erabilera hori esparru jakin batean indartu nahi da, komikigintza bezalako arte batean. Nabarmentzekoa da, gainera, gazteengandik oso gertu dagoen esparrua dela.

Zer moduzko erantzuna izan dute aurreko lehiaketek?

Aurreko hirurek oso harrera ona izan dute. 120 parte hartzaile izan ohi ditugu. Horietatik gehienak eskualdekoak izaten dira, baina, badira eskualdez kanpokoak ere.

Parte hartzaileen artean, denetarik izango da, ezta?

Adin eta kalitate ezberdinekoak izaten ditugu. Guk guztiak saritzea nahiko genuke, baina hori posible ez denez, erakusketa jartzen dugu martxan, lanek nola baiten zabalkundea izan dezaten.

Edonork har al dezake parte, edo marrazten jakitea ezinbestekoa da?

Euskararekiko eta marrazkiekiko gogoia izatea nahikoa da. Ez dila inor geratu parte hartu gabe bere burua ez duelako marrazke-

tan behar adina baloratzen. Beraz, alde horretatik, bai gaztetxoak bai eta helduak ere, guztiak animatzen ditugu parte hartzera.

Zerekin geratzen zara bereziki harrituta lanak ikusterakoan?

Sorkuntzarekin. Komikiak bozkatzerakoan, puntuaketa handiena bi alorrek maila handikoak dituenak ematen du, hau da, bai marrazkia bai eta komikiaren istorioa oso onak dituenak. Komiki osoa da, beraz, saritua izango dena. Hainbat komikik harritura sor dezakete marrazkiaren originaltasunagatik, baina gero istorioarekin galdu egiten dute, edo alderantziz. Normalean, ia komiki parte hartzaile guztiek badute zerbait ona.

→ Laburrak

Asis sarearen otoitzaldi bilkura, gaur arratsaldean

ARESO » Asis sarearen otoitzaldi bilkura izango da gaur, Jasokundeko Ama Birjinaren elizan. 19:30ean hasiko da bilkura. Informazio gehiagorako asissare.org helbidea bisita daiteke.

Lehen herri batzarra egingo dute, bihar

BERASTEGI » Lehen herri batzararako gonbita egiten die udalak herritarrei. Batzarra bihar izango da, 21:00etan, Muñagorri eskolako ganbaran. Udal langileen ardurak, alkatearen eta zinegotzien ardurak eta batzordeen aurkezpena eta orain arte egindakoa eta aurrera begirakoa aztertuko dute.

Osoko ohiko batzarra egingo dute gaur gauean

LEITZA » Osoko ohiko bilkura egingo da gaur Leitzako udaltxeko batzar aretoan, 21:00etan. Besteak beste, Leitzeta eta Aresoko udalen arteko hitzarmena onartuko da.

Festa urriaren 15ean, Urepel taldearen eskutik

BERASTEGI » Urepel kultur taldea festa antolatzen ari da urriaren 15erako. Duela 6 urte bi herritarren arteko «ezkontza» egin zuten, antzerki taldearen laguntzarekin, eta hura erreplikatzeko asmoa dute. Herritar oro gonbidatu nahi dute ospakizunera; afairako txartela 20 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta ez bazkideek, beriz, 22. «Datore» joatea jarri dute baldintza bezala.



Duela sei urteko festa. HITZA

Hilberriak

ANTXON BANDRES ZARAGUETA jauna

Mendia maite zenuen
eta mendian gelditu.
Adiorik ez
gero arte baizik.

Tolosako Urkizu auzoan, 2011ko irailaren 29a

ANTXON BANDRES ZARAGUETA jauna

Irailaren 27an hil zen istripuz,
63 urte zituela.

Bere emaztea: Marijo Lasa; semeak: Jose (†), Kristian; arreba: Loli; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Hileta elizkizuna GAUR OSTEGUNARRATSALDEKO ZAZPIETAN izango da, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan.

Tolosan, 2011ko irailaren 29a

Helbidea: Urkizu auzoa, Bista Eder etxea.
Oharra: Gorputz belia Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da OSTEGUNA eguerdiko 12:45ak arte.

ANTXON BANDRES ZARAGUETA jauna

Zinegotzi ohia

TOLOSAKO UDALA

Tolosan, 2011ko irailaren 29a



Pasa den urteko azoka berezira jende ugari gerturatu zen. HITZA

Bertakoaren erakusleio

III. Merkatu Txikia izango da igande goizean; herri bazkaria ere izango da animatzen den ororentzat

Iñigo Terradillos Belauntza

Herriko baserrietako eta etxeetako produktuak kalera aterako dituzte igande honetan, urriaren 2an, Belauntzako III. Merkatu Txikian. Goiz pasa polita egiteko aukera izango da, beraz, bertan, eta jarraipena eman ahaliko zaio, gainera, goizari, bazkaria ere egongo baita nahi duen ororentzat.

Postu ugari izango dira ikusgai, eta noski erosteko aukera ere bai. Batetik, abereak egongo dira, herriko baserrietakoak. Astoak, zaldiak nahiz behiak ikusi ahaliko dira, eta berezitasun bezala, baita ahuntz eta ardi enanoak ere.

Barazki eta frutei dagokienez, lau postu egongo dira. Eta jakiekin jarraituz, herriko gazteek pintxoan postua jarriko dute, eta Martintxo kultur elkarteak jarritako postuan ere jateko aukera egongo da.

Artisauak eta bigarren eskuko materiala

Artisauak eginiko lanaz gozatze-ko aukera ere izango da. Hala, herriko bi ahizpek eginiko eskulane-kin osaturiko postua egongo da, eta egur tailaz beterikoa ere bai.

Bestalde, bigarren eskuko materiala ere egongo da Belauntzako III. Merkatuan. Hain zuzen ere, Emaus-ekoek jarritako materiala izango da batetik, eta bestetik, herriarrek jarritako bigarren eskuko materialarekin osaturiko postua.

Herri bazkaria, azoka eta gero Merkatua 10:30etik 14:00etara egongo da zabalik. Ondoren, 15:00ak aldera herri bazkaria egingo dute.

Herriko nahiz kanpoko edo-nork parte hartu ahaliko du bertan. 30 euroren truke eskuratu ahaliko dira bertarako txartelak, eta gaur izango da azken eguna horretarako. Belauntzako tabernan daude eskuragarri.

Produktuen saskiaren zozketa Belauntzako Merkatu Txikira gerturatzen direnek saria ere jaso ahaliko dute. Izan ere, merkatuan

↓ Hainbat datu

- **Noiz.** Igandea, urriak 2, 10:30etik 14:00etara.
- **Zer.** Belauntzako III. Merkatu Txikia.
- **Ezaugarriak.** Abereen postuak egongo dira, jakienak, artisauak eta bigarren eskuko materialarenak.
- **Bazkaria.** Merkatua amaitzean herri bazkaria egingo dute. Txartelak 30 euroren truke daude eskuragarri Belauntzako tabernan.
- **Zozketa.** Merkatuan parte hartzen duten postuetako materialarekin osaturiko saskiaren zozketa egingo da.

postua jarri duten herritar guztien artean, bakoitzak produkturen bat utzita, saski bat osatu dute. Saski horren zozketa igandean bertan egingo da.

Belauntzako Udalak herritar guztiak animatzen ditu merkatu- gerturatzerara igandean. Hala-ber, eskerrak eman nahi dizkie antolaketan eta postuak osatzen lagundu duten herritar guztiei, bereziki Martintxo kultur elkar-teari.

Ikastaro eskaintza oparoa, eskura

Zortzi ikastaro jarri dituzte aukeran; urriaren 3a baino lehen eman beharko dute izena interesatuek

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria sailak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako, eta horietan izen emateko aukera zabalik da urriaren 3ra arte. Benito Izagirre kultur etxera joanda egin ahaliko da izen-ematea. Gainera, abantailarik ere izango da; gazte txartela dutenek %10eko deskontua izango dute, eta familia ugari %50eko beharapena egingo zaie. Informazio gehiago nahi duenak kultur etxera (943 67 03 99) deitu besterik ez du egin behar.

Askotariko eskaintza

Aurreko urteetan ikastaroek izan duten harreraren arabera, eta izaten diren eskaeren arabera antolatu ohi dute ikasturte berrirako eskaintza. Hala, ondorengoak jarri dituzte aurtengoa, herritar

ororen eskura: lorazaintza, sabel-dantza, egur taila, ehoziriak, errestaurazioa, pintura, eskulana eta arropa konponketa. Lantegi guztiek ikasturte osoko iraupena izango dute.

Lorazaintza lantegia ostegunetan emango da, 17:30etik 19:00etara. Sabel-dantza ikastaroa ere ostegunetan jarri dute, 19:00etatik 21:00etara. Egur taila astearte eta ostegunetan izango da, 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Ehaziriaren lantegia astearteetan izango da, 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era. Egur errestaurazio lantegia astelehenetan eta asteazkenetan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Pintura lantegia, bestalde, astearte eta ostegunetan emango dute 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era (berrientzat). Eskularen lantegia astelehenetan eta asteazkenetan izango da, 17:30etik 19:30era. Azkenik, arropa konponketa ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 10:30etik 12:30era eta 15:30etik 17:30era.

134,23 euro edota 167,07 euro kostako dira ikastaroak. Lantegiaren arabera prezio bat edo beste izango dute.



Pasa den urteko tallerretan eginiko lan batzuk. M. UGARTEMENDIA

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun

urriaren 31 baino lehen eta jaso

artxai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 | harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.



≈ **26°**
≈ **17°**

GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	26°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 118. ibarraledea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaledea: 687 410 118. leitzaledea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa




URKIZUARRAK PAELLAREN BUELTAN

Pasa den larunbatean Tolosako Urkizu auzoko Alur Txiki elkarte txiki geratu zitzairen urkizuarrei. 100 lagun inguru bildu ziren auzo bazkarian, elkarteko kideek prestatutako paella erraldoia eta oilaskoa dastatu asmoz.

Duela lau urte hasi ziren auzotarrak elkarrekin biltzen horrela harremanak sendotu ahal izateko, eta giro ederrean pasa zuten eguna. Datorren larunbatean, urriak 1, Urbiara egingo dute iteera. HITZA

Agurrak



Urte askoan!

Haizea Baraibar Goñi (Areso).

Zorionak bihotza zure 3. urtebetetze egunean. Jarraitu orain arte bezain alai! Muxu bat Berrobiko aitona-amonon partez.



Zorionak!

Migel Arostegi Beraza (Ibarra). Gaur zure eguna da eta bihar 89 urte beteko dituzu. Beraz, muxu handi bat etxekoan partetik aitona!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Asis Sarearen hileroko otoitzaldia gaur, 19:30ean, Klarisen komentuan.
- **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkarrekin erretzeari uzteko taldeetan izena eman daitekeela azaldu du. Bihar da azken eguna: 943 45 77 22 edo gipuzkoa@aecc.es.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarrekin Tozal de Guara eta Peña Canclasa joateko iteera antolatu du astebururako. Izena emateko idatzi info@oargi.org-ra edo deitu 688 698 642 telefono zenbakira.

JAIK

- **Irura.** San Migel jaian barruan, gaur, 09:00etan kalejira bu-

ruhandiekin eta Loatzoko musika eskolako trikitilariekin; 11:00etan meza nagusia eta ondoren, dantzariak eta hamaiketakoak; 17:30ean herriko dantzari saioa; 18:30etan Txan magoa; eta 19:30ean Patxi Saiz abeslariaren kantaldia.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

